

## Galdera

Zuzenak al dira euskara batuan "pasa den astean", "pasadan astean" eta antzekoak?

### Erantzuna

\*"pasadan astean" ez da zuzena hitz bakarrean emanik; Euskaltzaindiak, **Hegoaldean** eta **lagunarte** mailan, partizipio burutuarentzat *pasa* forma ere onartzen du [bi hitzetan, "pasa den"]: *albotik pasa da*, etab.

Beraz, bereiz idatziz gero, onartzeko modukoa litzateke "pasa den astean", xehetasun birekin: Hegoaldean eta lagunartean.

Ohiko forma estandarrek hauek dira: *aurreko*, *iraganeko*, *iragan* [lehen gertatutakoaz mintzatuz]; *iaz*, *iazko* [urteaz ari garela]; *iragan*, *joan den*, *aurreko*, *lehengo* [hilaz, asteaz, udaz, neguaz...].

#### 1/ Euskaltzaindiak hau dio '[pasatu](#)' hitzaren sarreran:

- ...  
[Oharra: Euskaltzaindiak, **Hegoaldean** eta **lagunarte** mailan, partizipio burutuarentzat *pasa* forma ere onartzen du: *albotik pasa da*, etab.].
- '[pasada](#)' [zehaldia, zafraldia] hitzari buruz, berriz, hau:  
**pasada**  
iz. *Heg.* Jipoia, astinaldia. *Gerrak pasada gaitza eman zion jendeari. Banekien Marrok, han harrapatuz gero, pasada on bat emango zidala.*
- '[pasadan](#)' [bidenabar, bide batez] sarreran:  
**pasadan**  
1 adb. *Heg. g.er.* Iragaitzaz. Ik. [pasaeran](#). *Han pasadoan zen moja batek nigatik errezatuko duela agindu dit.*  
2 adb. *Heg. g.er.* Bidenabar.  
3 adb. *Heg. g.er.* Igarotzean.

#### 2/ Orotariko Euskal Hiztegiak ere '[pasadan](#)' [bidenabar, bide batez] sarrera jasotzen du:

a) Al pasar, de paso. "*Uberara bazoiaz, pasaran ura ekarri*"...

#### 3/ Euskara Batuaren eskuliburuak '[pasa/pasatu](#)' partizipioari buruz hau dio:

##### **pasa/pasatu**

*Pasatu* forma da aditzaren forma estandarra (albotik pasatu da, pasatu zen), baina Hegoaldean (*Heg.*) eta lagunarte mailan (*Lgart.*), *pasa* forma ere onartzen da era burutuarentzat (albotik pasa da, pasa zen).

#### 4/ Elhuyar Hiztegiak [pasado](#) hitzari buruz:

- ...  
2 *adj.* [ocurrido en un tiempo anterior] [aurreko](#), *iraganeko*, [iragan](#); [año] [iaz](#), [iazko](#); [mes, semana, verano, invierno] [iragan](#), [joan den](#), [aurreko](#), [lehengo](#).
- '[pasadan](#)' sarreran:  
*adb.* (*Heg.*) [de paso](#); al pasar  
*han pasadoan zen gizon bati deitu, eta zer gertatzen zen galdetu nion*: llamé a un hombre que estaba ahí de paso y le pregunté qué pasaba.
- '[pasada](#)' hitzak, berriz, lehen esan bezala, beste esanahi bat du:  
1 *iz.* (*Heg.*) [paliza](#), [zurra](#), [somanta](#)  
*etsaiek ikaragarritzko pasada eman didate*: mis enemigos me han propinado una paliza enorme.